

Errobi

Anje Duhaldek (Arrangoitze, Lapurdi, 1950) eta Mixel Ducauk (Baiona, Lapurdi, 1951) euskal rockaren hastapenetan parte hartu zuten. Mixel Ducauk 69 urte ditu eta Anje Duhaldek 70 urte ditu.

Anje Duhaldek eta Mixel Ducauk lizeoan ,institutuan,elkar ezagutu zuten, baina 1973an disko denda batean topo egin eta musikaz hitz egiten hasi ziren. Gustuetan bat egiten zutela ikusirik, elkarrekin talde bat egiteko asmoari ekin zioten. Garai hartan, Pabeko (Biarno) Bacchanales taldean ari zen Ducauk eta Duhaldek bateria jotzen zuen El Fuego plaza taldean. El Fuego abesten eta gitarra jotzen hasi zen Ducauk. Hirukotea osatzen zuen musikaria Jean Phocas baxu jotzailea zen.

Errobi taldea osatu zuten elkarrekin 1973. urtean eta lehedabiziko kontzertuak ematen hasi ziren. Taldea 1985ean desegin zen.

Partaideak: Anje Duhalde, Mixel Ducauk, Beñat Amorena eta Jean Phocas.

Kanta Ospetsuak: Aitarik ez dut, Kanpo, Andere, Nagusiaren nigarrak, Gure lekukotasuna...

Zuretzat (Errobi)

<https://www.youtube.com/watch?v=jaPJH9EYi4M>

Zuretzat, zuretzat neure maitia,
Kantu berri hau dut idatzia,
Zu baizarelako, neure bihotzeko
izar ezti, izar eder, izar betiko.
Zuretzat bakarrik,
Zuretzat, bakar, bakarrik.

Neguko gau hotz batian,
Toki ilun baina goxoan,
Aurkitu zintudalarik, bakar, bakarrik,
Neure bihotza nautzun zabaldu,
Ta zuk onartu neure eskaintza;
Eta geroztik ez gira berexten elgarretarrik.

Zure arpegi ederra,
Zure behako sarkorra.
Zure ezpainen guria,
Zure gogo hain argia,
Ni baitan daude gorde gorderik.
Gau eta egun zutaz naiz gose
Eta hil nahike neure aldetik joaiten bazine.

Egileak: Xabat Maritxalar eta Uxue Mindeguia